



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2016ko martxoak 10
Ordua: 19:00 – 19:45
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gelan

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Alazne Lafragua Ureta
Unai Gotxi Kastrexana
Joseba Elejalde Ribacoba.

Ez dira bertaratu:

Jose Luis de Valle Duque

M^a Ascensión Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2016ko otsailaren 4an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkate jaunak hartu du hitza: Ezer esateko baduzue... Nik bai, izan ere, nire aipamen bat agertzen da, orrialdeak ez daude zenbakituta, baina horrela aipatzen da: "Alkate jauna: puntuari dagokionez errepikatu nahi dut bilkuran azaldu nuela planteamendua zein izan zen", eta jartzen du "eta aurrerago azaltzen da", berez "berriro azaltzen dut" jarri beharrean. Ez duzue ezer esateko?

2016ko Otsailaren 4an egindako saioko akta bozkatu da:

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko kidea (1) eta Inmaculada Vivanco Retes EAJ alderdiko kidea(1).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (2); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4).

Onartuta geratu da.



2. Aramendia S.L. sozietateari Salazar Dorrea alokatzeko kontratua eten dezala eskatzea.

Alkate jaunak 2016ko otsailaren 24an egindako saioan lurraldeko informazio-batzordeak ebatzitako irizpena irakurriko du:

“2016KO OTSAILAREN 24AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

GAIA: ARAMENDIA S.L merkataritza-enpresari Salazar Dorrea alokatzeko kontratua etetea eskatzea ez ordaintzeagatik.

Ikusirik 1994ko uztailaren 26an Artziniegako Udalak eta ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresak sinatutako hitzarmena, zeinaren bidez Udalak bere jabetzakoa den “Salazar Dorrearen” erabilera aipatutako merkataritza-enpresari lagatzen dion, ostalaritzako establezimendu bat kudeatzeko.

Ikusirik Hitzarmenean zera adierazten dela “helburu hori lortzeko, Aramendia S.L. sozietateak, askatasun osoz, dagokion jardueraren titular den pertsona fisiko edo juridikoarekin alokatzeko, berrakurtzeko, lagatzeko edo egoki ikusten duen beste edozertarako kontratua sinatuko du, eta, hala badagokio, kontratuak eteteko akordioa ere bai, besterik gabe, hautatutako titularra izendatzen den egunetik hamabost eguneko epearen barnean jakinarazteko baldintzapean, beranduenez; eta hori guztiori jarduera garatzeko beharrezkoak diren baldintza administratiboak gorabehera”.

Ikusirik higieztina erabiltzearen ordainetan Aramendia S.L. sozietateak ustiapenerako egokiak diren kudeatzaileak hautatzeko eta sustatzeko eta jabetzaren aurrean haien ordezkari modura jarduteko konpromisoa hartzen duela.

Ikusirik Udalean 2005eko abenduaren 2an Kepa Rekakoetxea Lekue jaunak (ARAMENDIA S.L. sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz); David Bilbao Ochoa jaunak eta Raquel Casas Torcida andreak (Aranbil S.L. sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz); eta Yolanda Molina Garcia andreak eta Francisco Javier Sanchez Iturribarri jaunak (Aialako Dorrea S.L. sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz) sinatutako kontratua dagoela. Kontratuaren arabera, ARAMENDIA S.L. sozietateak, emakidadun modura, eta Aialako Dorrea S.L. sozietateak, errentari modura, Artziniegako Salazar Dorrearen eraikinean kokatutako negozio-lokala alokatzea adosten dute, ostalaritza moduan ustiatzeko.

IKUSIRIK errentariak errenta kontzeptuan 15.062,43 euro zor dituela, 2014ko abenduaren 1etik ordaintzeko betebeharra urratuz. Horrenbestez, emakidaduna den ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresari eskatzen zaio errentariak beregain hartutako kontratuzko betebeharrak bete ditzan bermatzeko neurriak har ditzala, hala badagokio, alokairu-kontratua etenez, Udal honi errentak ez ordaintzeagatik metatutako zorra kitzatzen ez bada.

KONTUAN HARTUZ Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatua; nahiz Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan eta toki araubideari dagokionez aplikagarri diren gainerako araudietan xedatua.

Udalbatza honek, 2016ko martxoaren 10ean ohiko bilkuran elkartuta, aho batez

ADOSTU DU:



Lehenik.- ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresari, Artziniegako Salazar dorrearen eraikineko emakidadun modura, Artziniegako Salazar Dorrea alokatzeko Yolanda Molina Garcia andreak eta Francisco Javier Sanchez Ituribarria jaunak, Aialako Dorrea S.L. sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, sinatutako kontratuko betebeharrak bete daitezela bermatzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak gauza ditzala, kontratua etenez Artziniegako Udalarari zor zaizkion errentak ordaindu gabe mantentzen badira.

Bigarrenik.- ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresari, Aialako Dorrea S.L. sozietateari eta interesa izan dezakeen edonori akordio honen berri ematea, adieraziz haren aurrean, aukera dutela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioekiko Auzien Epaitegien aurrean, hala badagokio, Udal honen aurrean hilabete bateko epean hautazko berraztertze errekurtsoa ezarri aurretik”.

Alkate jaunak adierazi du: horixe da informazio-batzordearen akordioa. Zerbait esan nahi duzue?

Oharrik egin ez denez, bozkaketa burutu da.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioak:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

3. 2016rako lan-baldintzak onartzea.

Alkate jaunak hartu du hitza: Akordio-proposamena irakurriko dut, sarrera ez dut irakurriko. “2016KO OTSAILAREN 24AN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA ETA KONTU BEREZIEN INGURUAN INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

UDALHITZ Negoziazio Kolektiboari dagokionez, EUDEL elkarteko Batzorde Betearazleak 2015eko abenduaren 10ean Euskadiko Udaletara Zirkular hau igortzea adostu zuen:

- EUDEL elkartearen Batzorde Betearazleak ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuen eta Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) artean oraindano jarraitutako arloko negoziazio-esparruaren balioa azpimarratu nahi du, izan ere, lan-harremanen esparru aurreratu bat egituratzen joatea eta Euskadiko tokiko erakundeek herritarrei eskainitako zerbitzuen eraginkortasuna, kalitatea eta espirtua aski garatzea ahalbidetu duen tresna bat da. Horrela ulertu dute gure Udala, Mankomunitate, Partzuergo eta gainerako sozietate publikoek. Horren erakusgarri da Euskadiko 193 Udalek eta 28 Mankomunitate eta Sozietate Publikok egungo UDALHITZ 2008-2010 delakoaren aurrean adierazitako atxikipena.

- Adierazi behar da azken urtean 12 negoziazio-mahai garatu direla ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuekin elkarriketa giroan eta negoziazorako prestutasun onarekin, eta une honetan EUDEL elkarteak 2015eko azaroaren 11n egindako PROPOSAMEN bat dagoela (I. eranskina) mahai gainean. Proposamen horretan enplegatu publikoen lan-baldintzei dagokienez hobekuntza nabariak barneratzen dira, azken urteotan gure enplegatu publikoek galdutako erosteko ahalmena pixkanaka berreskuratuz bideratutako formulekin batera. Hori guztiori Udala bakoitzaren testuinguru ekonomiko nahiz egoera ekonomiko eta finantzazioaren baitan.

- EUDEL elkarteak Negoziazio-mahaian hainbat proposamen egin baditu ere, gaurdaino ezinezkoa izan dela Sindikatuekin Akordio bat erdiestea. Hori dela eta, EUDEL elkarteak



negoziatzen jarraitzeko bere borondatea berretsi du, eta Negoziatio-mahaia zabalik mantentzea erabaki du, aukera guztiak xahutuz alde guztientzat onuragarria izango den Akordio bat lortze aldera. Hori dela eta, Udalei eta inplikaturako gainerako erakundeei Negoziatio-mahai indibidualak ez ditzatela zabaldu eskatu die, UDALHITZ Mahai Orokorrean arloko akordio bat lortzea ahalbidetzeko xedez.

- EUDEL elkartearen gure Udaletan enplegatu publikoek azken urteotan testuinguru sozial eta ekonomiko korapilatsu batean bete duten lanaren jakitun dela, derrigorrez azpimarratu behar direlarik lanpostuan izandako errendimendua, nahiz erakutsitako interes eta ekimena, horri esker, oro har, helburuak erdieste eta lantaldeak izandako emaitzak hobetzea lortu baita 2015eko ekitaldian. Horrenbestez, EUDEL elkartearen arabera egoki da, sindikatuekin Akordiorik ez dagoen arren, Udalen artean EUDEL elkarteak 2015eko azaroaren 11n egindako Proposamenean barneratzen diren zenbait neurri hartzea, hori dela eta **GOMENDATZEN die Udalei, Mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei, beren instituzioetan neurri hauek onar ditzatela:**

AKORDIO-PROPOSAMENA

1.- 2015 MODERNIZAZIO ETA PRODUKTIBITATERAKO % 0,6ko FUNTSA GAITZEA (EUDEL elkarteak 2015eko azaroaren 11n egindako proposameneko 3. lerroaldeko 5. puntuarekin bat etorritik - I. eranskina).

Ekitaldi honetan egindako ahalegin bereziaren eta konpromiso publikoak betetzearen ordainetan, neurri batean azken ekitaldian enplegatu publikoek galdutako erosteko ahalmena arinduz, **2015eko ekitaldian zerbitzu publikoak modernizatzeko, haien prestazioa arrazionalizatzeko eta Erakundearen administrazioaren produktibitatea hobetzeko funts bat gaitu dadila % 0,6ko portzentajearekin oinarrizko ordainsarien eta ordainsari osagarrien soldata-masaren gainean, modu horretan, posible balitz, ekitaldi honetan bertan gauza dadin edo, hori ezinezkoa balitz, aurrekontua aintzat hartuz zilegi denean, ahal dela 2016ko ekitaldiaren barnean.**

2.- 2012. URTEKO ENPLEGATU PUBLIKOEN APARTEKO ORDAINSARIA ETA GEHIGARRIA BERRESKURATZEA (EUDEL elkarteak 2015eko azaroaren 11n egindako proposameneko 2. puntuarekin bat etorritik - I. eranskina). (OHARRA: Oraindik ordainketa egin edo ordainsaria berreskuratu ez duten Udalentzat Esklusiboki hura sortu zuten langileei). 2015. urtean 2012. urteko aparteko ordainsaria ordain dadila, 44 egun eta 48 eguneko (% 24,04 + % 26,23 baturaren baliokidea). Hori guztiori abenduaren 26ko 36/2014 Legean eta irailaren 11ko 10/2015 Legegintzako Errege Dekretuan xedatuarekin bat etorritik.

Era berean, **2016an, eta aurrekontua aintzat hartuz posible den bezain pronto, 2012. urteko aparteko ordainsaritik berreskuratzeko geratzen den gainerako kopurua ordain dadila (% 49,73ren baliokidea), hori guztiori Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 48/2015 Legean 2016. urterako ezarritako aukerarekin bat etorritik.**

3.- 2016. EKITALDIAN ORDAINSARIA % 1 IGOTZEA (EUDEL elkarteak 2015eko azaroaren 11n egindako proposameneko 4. lerroaldeko 5. puntuarekin bat etorritik - I. eranskina).

2016. ekitaldian sektore publikoko langileen ordainsarrietan % 1eko igoera izatea 2015eko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, alderatzen diren bi epealdietarako homogeneotasunari so, hala langile kopurua nola haien antzintasuna kontuan hartuz, hori guztiori Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean 2016. urterako ezarritako aukerarekin bat etorritik.

4.- EUDELI EGITEKO JAKINARAZPENA

Euskadiko Udalen Elkarteari (EUDEL) eskumeneko organoak gomendio hau jarraitzearen inguruan hartutako Akordioaren berri ematea adosten da”.

Alkate jauna: Baduzue ezer esateko?



Joseba Elejalde Ribacobak hartu du hitza: Onartutakoa, Udal honetan onartu nahi duzuen legearekin ez datorrela bat uste dut, hots, ez datorrela bat Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearekin. 2016. urterako % 1eko igoera dago proposatuta, eta onartu nahi dena aplikatzen badugu, Eudel elkartearen akordioari dagokion 3. puntuan adierazten den % 1eko igoera, gehi 1. puntuan aipatzen den % 0,6koa, modernizazio eta produktibitate funtseko atala dena, azkenik, Estatuko Aurrekontu Orokorretan onartutakoaren gainetik legoke igoera eta, gure ustez, hori ez dator legearekin bat. Hori dela eta, Idazkari eta Kontu hartzaile andreak txosten bat taxutu dezala eskatzen diogu, esanez igoera horretan urratu egiten dela...

Idazkari eta Kontu-hartzaile andreak erantzun du; txostena badut, baina gaur goizean amaitu dut. Eta 19.2. artikuluan % 1eko igoera aurreikusten da eta xedapen gehigarria aparteko ordainsaria berreskuratzeari buruzkoa da, baina produktibitatearen osagarriarenak ez du lege aldetiko babesik.

Esaten dugun bakarra da, guk aurkako botoa emango dugula, eta arrazoi hori dela medio, txostena egitea eskatzen dugula. Eginda badago, helaraztea nahi dugu, osoko bilkuran azkenean gauzatu ezingo den ebazpen bat ez bozkatzeko eta langileekin arazo bat ez sortzeko...

Alkate jaunak esan du: bada guk ez dugu txostenaren berri izan...

Joseba Elejalde Ribacoba: Nik mahai gainean utziko nuke puntu hori argitu arte.

Idazkari eta kontu-hartzaile andrea: Eta, gero, 2. puntuari dagokionez, Eudel elkarteak egindako proposamenari buruz, % 24,04 eta % 26,23 horiek hemen kobratuta daude dagoeneko, % 49 faltako litzateke.

Alkate jaunak galdetu du: Minutu bat har dezakegu komentatzeko, ongi baderitozue?

Etenaldi bat egin da.

Etenaldia amaitzean bozkatu egin da.

Kontran:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioak:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak(3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu alderdiko kideak(4);

Onartuta geratu da.

4. Zorra aitortzea (Kuadrillako Enplegu Plana 2014-2015).

Alkate jaunak irakurri du:

"2016KO OTSAILAREN 24AN EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA ETA KONTU BEREZIEN INGURUAN INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.

Idazkaritzak hurrengo kreditua, 2014ko ekitaldiari dagokiona (aitorpena eta likidazioa), estrajudizialki aitortzeko eta 2015eko kontura entregatzea aitortzeko aplikagarri den prozedura eta legediari buruz 2015eko otsailaren 19an igorritako txostena kontuan hartuz:

Hirugarrenik: AIARAKO KUADRILLA.

Enplegurako Eskualde Plana: 62/2014 Dekretua. Ekarpenen Erregularizazioa 2014.

Erregistro-data: 2014ko abenduak 5, 2429 zenbakiduna.

Zenbatekoa 3.277,91 eurokoa.

Hirugarrenik: AIARAKO KUADRILLA.



*Enplegurako Eskualde Plana: 55/2015 Dekretua Ekarpenen Erregularizazioa 2015.
Erregistro-data: 2015eko azaroak 19, 2623 zenbakiduna.
Zenbatekoa 3.800,55 eurokoa.*

*Hirugarrenik: AIARAKO KUADRILLA.
Enplegurako Eskualde Plana: 10/2016 Dekretua. 2014ko Likidazioa.
Erregistro-data: 2016ko otsailak 18, 432 zenbakiduna.
Zenbatekoa 1.566,79 eurokoa.*

Kontuan hartuz 2016ko otsailaren 19an Kontu-hartzaitzak igorritako txostena, aitorten hori zilegi zela adierazten zuena.

Kontuan hartuz Alkatezaz horri dagokionez egindako proposamena, eta ikusirik Udalbatzari apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 60.2. artikularen arabera esleitzen zaion eskuduntza, 2016ko otsailaren 24an Ogasun arloko Informazio-batzordeak erabaki du Udalbatzari proposatzea hurrengo

AKORDIOA

LEHENIK: *Hurrengo kredituaren aitortpena onartzea, 2014. ekitaldiari dagokiona.*

*Hirugarrenik: AIARAKO KUADRILLA.
Enplegurako Eskualde Plana: 62/2014 Dekretua. Ekarpenen Erregularizazioa 2014.
Erregistro-data: 2014ko abenduak 5, 2429 zenbakiduna.
Zenbatekoa 3.277,91 eurokoa.*

BIGARRENIK. *Hurrengo kredituaren aitortpena onartzea, 2015. ekitaldiari dagokiona.*

*Hirugarrenik: AIARAKO KUADRILLA.
Enplegurako Eskualde Plana: 55/2015 Dekretua Ekarpenen Erregularizazioa 2015.
Erregistro-data: 2015eko azaroak 19, 2623 zenbakiduna.
Zenbatekoa 3.800,55 eurokoa.*

HIRUGARRENIK: *Kredituaren likidazioa onartzea onartzea, 2014. ekitaldiari dagokiona.*

*Hirugarrenik: AIARAKO KUADRILLA.
Enplegurako Eskualde Plana: 10/2016 Dekretua. 2014ko Likidazioa.
Erregistro-data: 2016ko otsailak 18, 432 zenbakiduna.
Zenbatekoa 1.566,79 eurokoa.*

LAUGARRENIK. *2016. ekitaldiko Aurrekontuan zordunduz, dagokion kreditua aplikatzea, "Ekarpenen Erregularizazio eta likidazioa 2014 eta 2015eko kontura entregatzeko Erregularizazioa. Aiarako Kuadrillako Enplegurako Eskualde Plana" izeneko 241.421.002 aurrekontu-aplikazioan zordunduz, 8.645,25 euroko gastuari aurre egiteko, zeinaren gainean zegokion atxikipena egin baitzen*

Alkate jauna: Puntu honetan Udalari 2015eko enplegurako eskualde planaren ondorioz dagozkion kopuruak ordaintzearekin lotuta dago, eta baita 2014koaren ondoriozkoa ere, izan ere, ordaintzeke dago, hala hasierako ekarpena, nola programaren likidazioari dagokiona. Baduzue ezer esateko?

Oharrik egin ez denez, bozkaketa burutu da.

Kontran:
Batere ez
Abstentzioak:
Batere ez
Aldeko botoak:



Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

5. Emakumearen Nazioarteko Egunerako aurkeztutako mozioak Deklarazio Instituzionala.

Alkate jauna: hasiera baten Bildu taldeak deklarazio bat egin zuen, Eusko Alderdi Jeltzaleak beste deklarazio bat egin zuen eta, beranduago, EH Bildu taldeak eta Eusko Alderdi Jeltzalea taldeak adostutako beste bat aurkeztu zen. Horrenbestez, ongi baderitzozue, mozio hau irakurriko dut.

“MARTXOAK 8, EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, egunero beren eskubideak lortu eta defendatzeko borrokatu duten eta borrokatzen duten, batzuetan beren bizitzak arriskuan jarriz, emakume guztiei omen egiteko aukera da, eta feminismoa gizateria osorako beharrezkoak diren balioetan oinarritzen den kultura eta filosofia bat dela aitortzeko. Berdintasuna lagungarri da pertsona guztien autonomia garatzeko, elkartasunezko balioak bultzatzen ditu, berdinen arteko harremanen garapena sustatzen du eta demokrazian aurrera egiten laguntzen du. Berdintasuna giza eskubide bat eta gizarte osoari egiten dio mesede.

Gaurkoa lortutako aurrerapenak ospatzeko eguna ere bada. Eusko Legebiltzarreko eserlekuetan emakume eta gizonen arteko parekotasuna egindako bidearen isla da. 2005ean Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea onartu zen eta ekarpen handia egin du lege horrek oreka horretan, ospatzeko beste arrazoi bat da hori.

Halaber, iritzi publikoari dei egiteko eguna da, aldarrikapenerako eguna da, izan ere, aurrerapen handiak lortu badira ere, emakumeen eta gizonen berdintasun egiazkoaren bidea artean luzea izango da eta ez da oinazetik faltako. Berdintasun erreal eta egiazkoa erronka bat da oraindik.

Baina era berean eta, batez ere, konpromisorako eguna da. Horregatik, emakumeen eta gizonen berdintasun erreal eta egiazkoa lortzeko beharrezkoak diren ekintza guztiak bultzatzen jarraitzeko gure jarrera berretsi nahi dugu, modu horretan, gizarte efiziente, solidario eta demokratiko baten eraikuntzan gure ekarpena eginez.

***Artziniegako Udalak** bat egiten du Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin, eta adin guztietako herritarrek martxoaren 8a ospatzeko antolatutako ekintza ezberdinetan parte hartzea adoretzen ditugu, eta egunero eskubide-berdintasunera bidean urratsak emateko jarrera eta portaerak defenditu eta hedatzera, horretarako ezinbestekoa baita gizarte osoaren, emakume nahiz gizonen, gizarte zibilaren, alderdi politikoen eta botere publikoen lan baterako eta jarraitua.*

Horregatik, deklarazio hau planteamendu ideologikoetatik harago joatea desio dugu, inguruabar sozial eta ekonomikoetatik harago, eta baita martxoari dagokion denbora-tartetik harago, jarrera jarraikor eta etengabe bilaka dadin, urteko hil guztietan gure ekintza agertuz. Gizarte-justiziaren izenean eta gizarte osoaren mesedetan.

Orobat, herritarren ordezkari modura, Artziniegako Udaleko zinegotziok gizonen eta emakumeen berdintasunerako lan egiteko gure ahalegina berresten dugu, legealdi honetarako hurrengo erronkak guregan hartuz. Bere garaian onartutako berdintasunerako udal plana eguneratzeko konpromisoa hartzen dugu, berdintasunaren ikuspegia Udaletik irteten diren esku-



hartze eta erabaki guztietan aplikatuz zeharkakotasunez, berdintasunerako Europako Gutunean jasotzen diren irizpideen arabera. 2016. urtean berdintasunerako udal foro bat bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, non udal ordezkariak ez ezik, elkarte nahiz partikularrek har dezaketen parte, berdintasunarekin lotutako udal politiketan herritarren partaidetza sustatu eta ahalbidetzeko xedez, eta beren proposamenak jasotzeko helburuarekin. Lengoia ez sexista erabiltzeko konpromisoa hartzen dugu gure udal jardunaren barnean, aldi berean, udaletxeko langileak inplikatur. Sare-lana sustatzeko konpromisoa hartzen dugu beste erakunde publiko batzuekin lankidetzan, sinergiak eta lankidetzak-esparruak aurkitzeko, genero-indarkeriaren biktimen akonpainamendua bereziki azpimarratuz. Berdin Bidean zerbitzuaren esparruan lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, berdintasunerako politikak eraginkortasunez garatze aldera. Udal jarduera guztietan parekotasunezko partaidetza garatu eta sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Amaitzeko, emakume guztiei omen egin nahi diegu, Benjamin Respaldiza gure herritar kuttunak idatzitako poema batekin, "Emakumearen eguna" izenekoa.

*Oinazez jaio zara, emakume, "ez utzi azpiratzen".
Ibilguak errekek menderatzen baditu eta hondartzak itsasoa garaitzen badu
zu harrapa ezinezko aire garbia zara
eta arnas dezaketenek askatasuna baino ez dute nabari.*

Bizitzaren hats doakoaren moduan ematen duzu.

*Ez ipini zure aurpegia laidotu nahi zaituenaren eskuetan
izan ere, ezpainak urratzen badizkizute, emakume, nola emango duzu musu?
Eta nola egingo diozu oihu munduari zure errealitate ederrena
abesteko erabiltzen duzun mingaina isilarazten badizute,
nola helarazi gizatasun-odolez elikatu duzun musika?*

*Ez zaitzatela kristalezko kaxa batean babestu
horretan saiatzen direnek zure barnean duzun
zerua lapurtu baino ez baitute nahi.*

*Babes zaitetz zure bizitza goraiatu baina
zure eskubide eta duintasuna aitortzen ez dutenen aurrean.*

*Emadazu eskua, ahizpa, goaz oinez ibiltzera
langintza ez baita erraza eta beldurrak lotu egin nahi gaitu.
Hartu nire eskua, lagun, ez dezagun atzerapausorik eman
ernamuindu dugun bizitzak ikus dezala fruitua,
lur berria, anaikidetasunezko berdintasunaren latifundioa.*

*Men egin, soilik, egia simple honen aurrean:
Inork ez duela zoriontasuna ebasteko eskubiderik,
oparitzen badakigun harribitxi kuttun hori".*

Alkate jaunak adierazi du: Zerbait esan nahi baduzue...

Unai Gotxi Kastrexana jaunak erantzun dio: nik bai. Irakurri egingo dut, ez nahasteko.

"Onartzeaz gauden deklarazio instituzional hau aurrerapauso handia da Udal honetan, ez soilik martxoaren 8ak irudikatzen duen borroka aitortzeagatik, baizik eta udalbatza honek feminismoaren gerizpean hartuko dituen konpromisoengatik.



Feminismoaz hitz egitea erabateko aldaketa bat onartzeko prest egotea da. Aldaketa gizarte ulertzeko moduan eta aldaketa gure jarduteko moduan. Aldaketa gizarte eraldatzeko eta haren oinarritzat justizia soziala eta pertsonen arteko berdintasuna ipintzeko.

Generoa ez da zapalkuntza-eredu bakarra gizartearen barnean. Arraza, sexu-orientazioa, kapital ekonomikoa, gaitasuna eta abar luze bat pertsona guztiak zapaltzeko erabiltzen dira modu batera edo bestera, gizartearen zati handi bat ikusezin bilakatuz beste zati baten pribilegioak lehenesteko.

Emakume askok bizitzari eusteko egiten duten lana ikusarazi eta, batez ere, duindu egin behar dugu. Baina, baina, beren etxeetatik kanpo, baina ez publikoki, jarduten dutenak ere. Eta, arlo horretan, Hiriska elkarteak lan izugarria egin du, emakumeen arteko harremanak eraikiz eta bakoitzak betetzen duen jardunaren barnean beren lana agerraraziz.

Elkartea babesten jarraitu behar dugu eta Hiriskak modu autonomoan lan egin dezala ahalbidetu behar dugu. Artziniegan gizarte feminista baten alde lan egin nahi duten pertsona guztiak babestu behar ditugun moduan.

Izan ere, ekitatearen aldeko abangoardia hura lortzeko, libreki nahiz modu antolatuan, lan egiten duten pertsonen osatu behar da. Paternalismoak ez du lekurik. Langintza feminista langintza autonomo bat da eta hura eraikitzen duten pertsonen baitakoa da soilik. Udalak paper estrategikoa betetzen du ekimen horiek babestuz, baina sekula ez da haiek kontrolatzen saiatu behar. Izan ere, arazo sozial bat dugu mintzagai, gizarteak soilik alda ditzakeen egiturez sostengatzen dena.

Deklarazio honetan, Eusko Legebiltzarrean, 2005ean onartutako legeari esker, emakume eta gizonen artean lortutako parekotasuna aitortzen dugu. Aurrerapauso bat izan zen, zalantzarik gabe, baina beste neurri batzuek parlamentu ekitatiboagoak eragin dituztela ere kontuan hartuz, alderdi kuantitatiboa baino ez dugu jorratu. Adibide bat: lege hura onartu zuen Eusko Legebiltzar hartan bazen talde politiko bat, non bertako kide guztiak, bat izan ezik, emakumeak ziren, "nekaneak" izendatzen zituzten iseka eginez.

Ordutik denboratxo bat igaro da eta berdintasunarekin lotutako lege eta planak han-hemen hedatu dira, baina arazoa bizi-bizirik dago. Politikari modura aritzen diren zenbait emakume mespretxatu egiten dira oraindik, eta gizarte ekitatibo baten aldeko aldaketa lortzeko lan egiten duten pertsona guztiak ere mespretxatu egiten dira, haiek feminazi edo, zuzenean, emagalduta modura aipatuz.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da langintza kualitatiboa egitea, eta efizientzia edo operatibitatea alde batera uztea.

Hasteko, Berdintasunerako udal Plana berregitura dezakegu, deklarazio honetako konpromisoetan agertzen den moduan. Guztion artean, gizon zein emakume, berregituratuz,



hemen eserita gaudenon eskuetan uztetik harago. Emakume guztien artean eraiki eta adostutako dokumentu bat taxutu behar da, herri guztiak berezko zer gisa hauteman dezan.

Eta, horretarako, foro bat dugu, eta hura eraikitzeako konpromisoa hartzen dugu. Emakume guztien artean araututako foro bat izan behar da, Plana betetzen dela, eguneratzen dela, bermatzekoa, eta Plana proposamen, deliberazio eta eztabaida baliatuz planifikatzea bermatzekoa. Erabakitzeako eta ekiteko ahalmena izango duen espazioa.

Hemen gaude, eta garenak gara horren alde borrokatu diren pertsona guztiei esker, eta emakumeok borroka horrekin jarraitzeako aukera dugu gizarte ekitatibo bat lortzeko, baldin eta guztion artean, gizon zein emakume, libreki egiten badugu borroka hori.

Inmaculada Vivanco Retes andrea: EAJ alderditik, irakurri dugun deklarazioa berresten dugu, besterik gabe.

Joseba Elejalde Ribacoba jauna: nik, guk ulertzen duguna adieraziko dut, neurri batean. Nire ustez, lehen fase horretan ez da ongi zehazten feminismoa dena. Nire ustez, gizarte demokratiko bat gizarte justua izan behar da lehendabizi. Eta, nola egituratzen den justiziaren heziketa, bada, balioetan heziz. Landu behar ditugun justizia, berdintasun, errespetu eta tolerantzia heziz. Nik bat egingo dut deklarazio horrekin ñabardura hauek eginez, eta uste dut niretzat eta gainerako pertsonentzat garrantzitsuak direla.

Oharririk egin ez denez, bozkaketa burutu da.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioak:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

6. Miguel Primo de Rivera herriko seme kuttun izendatzeko onespena atzera botatzeari buruzko EH Bilduren mozioa

Alkate jaunak Antolaketa Informazio-batzordeak EH Bildu alderdiak aurkeztutako mozioari buruz emandako Irizpena irakurri du:

“2016ko otsailaren 24an egindako saioan antolaketa informazio-batzordeak emandako irizpena.

1925eko azaroaren 3an, Artziniegako Udaleko Udalbatza zenak Miguel Primo de Rivera herriko seme kuttun izendatzea onartu zuen, aurreko hilean “Afrikako etsaiaren aurkako” gerran, Axdir bereganatzeagatik esker onak emanaz. Miguel Primo de Riverak, Jose Antonio Primo de Riveraren aitak, diktadore modura jardun zuen 1923-1930 bitartean.

PROPOSAMENA



Artziniegako Udaleko Udaltzako Miguel Primo de Rivera y Orbaneja herriko seme kuttun izendatzeko 1925eko azaroaren 3an emandako onespena atzera botatzea adosten du”.

Joseba Vivanco Retes jauna: Ñabardura bat soilik. Guk, jakina, onartu egingo dugu. EH Bildu alderdiak aurkeztutako mozio bat da. Dena den, ñabardura bat egin nahi dut, izan ere, onartzen ari garena batzordearen irizpen bat dela ulertzen dugu, baina ez da inon ageri EH Bildu alderdiak aurkeztu duen mozio bat denik. Ez dakit...

Idazkari eta kontu-hartzaile andrea; hori niri dagokit, zuzenean hartu eta mekanografiatu egin nuen, eta gaztelaniazko aurpegian ez da horri buruzko deus aipatzen.

Joseba Vivanco Retes: harritu egiten gintuen gure taldeak aurkeztutako mozio bat denik ez aipatzea, horrek harritzen gintuen. Baina, tira, aktan ager dadila gure taldeak aurkeztutako mozio bat dela. Hori bakarrik.

Joseba Elejalde Ribacoba jauna: Gauza bat esan nahi dut. Ez nago ados gaiarekin. Arreta ematen dit zinez, Aurreko Osoko Bilkurako udal kudeaketarako kontrolari buruzko aktan EH Bildu alderdiak Euskal Presoak Euskadira zioen pankarta bati buruz galde egin zuen, Udaltzari hura jarri zedila eskatuz. Funtsean, HB Bildu alderditik arreta ematen dit alde batetik terrorista klandestino batzuen eskubideak babestu, aldarrikatu, lagundu eta defendatzea eta, beste alde batetik, beste diktadore edo hiltzaile batzuk kondenatzea, ez? Hots, lehen mailako eta bigarren mailako diktadoreak daude, itxuraz. Uste dut badela garaia basakeria guztiak berdin-berdin kondenatzeko; giza eskubide guztiak berdin-berdin babestu behar dira, ez pertsona batzuenak soilik, eta bandera hori udaletxean berriro ez dadila jarri eskatzen dizuet. Gehienbat errespetua zor diegulako, 1.000 biktima baino gehiago daude eta errespetua zor diegu.

Bozkatu egin da.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioak:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (2); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

Arratsaldeko zazpi eta erdietan (19:30) Joseba Vivanco Retes irten egin da.

7. Alkatetza-ebazpenen berri ematea

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 2016. urteko 13-25 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du. 20. zenbakia falta da, eta hurrengo saiorako utzi da.

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

8. 2015eko laugarren hiruhilekoko egikaritze-aurrekontuaren berri ematea.

Alkate jaunak adierazi du: hau da dokumentazioa, zerbait esan nahi baduzue... Beno, esan behar dut, aurreragoko Dekretu bat dela, baina gastu orokorretarako 2015. urteko soberakina 581.556,22 eurokoa dela aurreratzen dut.



Arkaitz San Jose Martinez jaunak galdetu du: Eta zenbateko horretatik, zenbat dago dagoeneko esleituta?

Alkate jauna: gastu orokorretarako soberakina.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, hori bai, baina ez da aurrekontu osoa exekutatu, badira gauza zenbait...

Alkate jauna: eragindako finantzaziodun gastuak deskontatuta daude dagoeneko.

Arkaitz San Jose Martinez jauna: ados.

Alkate jauna: ez bai, horixe da zenbatekoa.

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

9. Berankortasun-txostenen eta haiek ordaintzeko 2015eko batez besteko epeen berri ematea.

Alkate jaunak adierazi du: hor ere agertzen da datua. Minus 12 egunetan ordaintzen dugu, baina badakizue hori zenbatekoa Formulari gagozkiola, epe negatiboaz atera daiteke, epea 60 eguneko baita, ez? 30 +30 egun, beraz, 60 egun baino gutxiagoan ordaintzen baduzu, zenbatekoa, formulak kalkulua negatiboan egiten du, eta horren arabera, minus 12,82 egun dira.

Berlaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderditik (1).

10. Udal kudeaketaren kontrola

• Alazne Lafragua Ureta andereñoak hartu du hitza: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak espaloien gaiari buruz ukatu duen laguntzari buruzko kontuaren inguruan. Ematekoa zen diru-laguntza zenbatekoa zen galdetu nahi dut, eta zenbateko galera suposatzen duen hura ez onartu izanak, hots, zenbat ordaintzea suposatuko digun guri orain.

Alkate jaunak erantzun du: Irisgarritasunari buruzko diru-laguntzaz ari zara?

Alazne Lafragua Ureta andereñoa: bai, Eusko Jaurlaritzarena, Etxebizitza Sailburuordetzarena.

Alkate jaunak erantzun du: Bai, bi proiektu eskatu genituen; bat, joan den urtean ere eskatu zen obrari buruzkoa da eta, bestea, udaletxe zaharrean igogailua instalatzeko. Udaletxe zaharrerako 52.000 euro eman dizkigute. Honetan, espaloiak eraberritzekoan, ez diguten eman, aurrekontu-krediturik ez egoteagatik. Beraz, obra Foru Planarekin finantzatu da; 190.000 euro dira, ondoren Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarekin...; Udalak jarri behar duen zatiari buruz ari naiz. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza 275.000 eurokoa da, eta Udalak berezko funtsetarako duen erreserba 300.000 eurokoa da.

Alazne Lafragua Ureta andereñoa: baina, joan den legealdian espaloien kostua 300.000 eurokoa izango zela aipatzen zen, eta hori baino gehiago izango da

Alkate jauna: ez, ez. Eskatu zena gehiago zen. Hots, diru-laguntza izanez gero, Udalak zenbateko hori jartzeari utzi ahalko zion.

Alazne Lafragua Ureta andereñoa: Eta zenbatekoa zen portzentajea?

Alkate jauna: ez dut gogoan portzentajea.

Alazne Lafragua Ureta andereñoa: izan ere, zati batean, hura jasoko zela uste zen, eta ez da jasoko.

Alkate jauna: ez genuen jasotzat eman. Jasotzen bazen hobe, baina ez genuen jasotzat ematen. Izan ere, iragan utean ukatu egin ziguten.



• Alazne Lafragua Ureta andereñoa: beste gai bat ere aipatu nahi dut, Santa Kolomako auzotar batek udaletxeko teilatu konponduaren altuerari buruz egindako salaketaren inguruan. Txostena eskatu den dagoeneko, edo zertan den kontua.

Alkate jauna: Noiz jarri du salaketa?

Idazkari eta kontu-hartzaile andrea: aste honetan, ezta? baina, beno, goizean hitz egin dugu horretaz. Arkitektoak hilaren 21ean aurkeztu zuen obra-amaiera eta teknikariak oraindik ez du txostena osatu.

Alazne Lafragua Ureta andereñoa: ados eta beste gai bat ere badut, hau da, kotxeen kontua dela-eta, herrigunean hartu beharreko neurrien ingurukoa. Zer egin behar den jakin nahi dut, izan ere, horri buruzko kexa formalak daude. Horrenbestez, zein neurri hartu behar diren edo Udalak zer egiteko asmoa duen jakin nahiko nuke.

Alkate jauna: auzotar batek egindako kexa bat iritsi zaigu.

Alazne Lafragua Ureta andereñoa: bai, baina egia da herrigunean arazo bat dagoela kotxeak direla medio. Beheko kaletik igarotzea besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Alkate jauna: kasu horretan Ertzaintza da eskumena duena. Ertzaintzari abisua eman ahal zaio, baina Ertzaintzak, ofizioz, etorri eta isuna jartzen du.

Alazne Lafragua Ureta andereñoa: Baina noren eskumena da abisua ematea? Zeren eta abisua emanda bakarrik etortzen dira, ezta? Hemendik ezin zaie deitu?

Alkate jauna: ez. Ertzaintza ez da soilik etortzen abisua jasotzen badu, ez.

Alazne Lafragua Ureta andereñoa: beno, nik Ertzain bati baino gehiagori entzun diot hori.

Alkate jauna: bada, ez dakit zer esaten duen Ertzaintzak, baina Ertzaintza ez da etortzen abisua jasotzen duenean.

Alazne Lafragua Ureta andereñoa: beno, nik ere ez dut ikusten hau.

• Arkaitz San Jose Martinez jaunak hitza hartu du: beno nik jarraitu egingo dut, aurreko Osoko Bilkuran esan genuen, eta orain berriro diogu. Sekula ez da berandu zuzentzeko. Berriro diogu, oro har, nahasi samarra da dena espaloiko obren inguruan, faseen inguruan, ez dakigu gauza bat noiz hasi eta bestea noiz amaituko den, eta beste hainbat kontu nahasi samarrak dira. Aurreko Osoko Bilkuran esan zenigun zuen ustez web-orrialdearekin eta WhatsApp aplikazioarekin aski zela, eta guk berriro diogu ez dela nahikoa, eta berriro eskatzen dizuegu saio bat edo jakinarazpen bat egin dezazuela, hots, guztia azaltzeko bilkura bat.

Alkate jauna: ondo da, aurretik esandakoari eusten diogu, ados?

Arkaitz San Jose Martinez jauna: ados, bada hurrengo Osoko Bilkuran berriro esango dugu. Eta, aurreko batean oharrak gainbegiratzen, eraketaz haragoko lehen Osoko Bilkuraz eta Udalsarean txertatzeko proposamenari buruz oroitu nintzen, non esperientzia mordo bat partekatuko ziren, iraunkortasunerako urratsak emango ziren; konpromiso bat sinatu zen eta guk adierazi genuen ez genuela sinatuko ez genuelako uste, sakonean, aurrera egiteko asmo sendorik zegoenik. Hala, uste dut, gutxi gorabehera urte erdia igaro dela eta bilkuraren batean izan zareten edo proposamenik ekarri duzuen jakin nahi nuke, beste udalerriren bateko adibiderik, zer egiten ari diren...

Alkate jauna: ez, ez gara bilkura bakar batean izan, baina ez dut uste deialdirik jaso dugunik ere. Beraz, momentuz ez dugu bilkurarik izan.

Arkaitz San Jose Martinez jauna: ados, baina jarrera aktiboa ere izan daiteke, eta espazio horietara joan daiteke. Esan nahi dudana da, oso urrun joan gabe, eskualdean badaudela Udalsarean txertatutako beste zenbait udalerrri. Haiekin esperientziak, ekimenak eta abar parteka daitezke.

Alkate jauna: nahiago nuke nik ere jarrera aktiboa izango bagenu esparru ezberdinetan, eta denera iritsiko bagina, baina ez da hala. Beno, besterik?

• Joseba Elejalde Ribacoba jauna: Ni etxetik mugitu naiz apur bat eta, atzo Retesera igotzen, lur-jausi bat ikusi nuen, bihurtunera iritsi baino lehentxeago, errepideetako arduradunek ikus dezaten.

Alkate jauna: ados. Besterik?

Ayuntamiento de Artziniega
(Álava)



Artziniegako Udala
(Araba)

Eta jorratzeko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da aipatu eguneko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu izanik. Eta horren guztiorren gainean, fede ematen dut.